

txintxarri

Harremanak finkatzeko jaia

Udaberri Festa ospatu du ILBE Iñigo de Loiolako Bizilagun Elkarteak, bigarren aldiz / 7

TXINTXARRI

Erromeriara bidean, maldarik ez

Santikurutz egunaren ondorengo igandean festa ospatu dute Azkortekeko basilizan, giro ederrean / 6

Erraustegira martxa eta ToxicWatch-en bina ekitaldi iragarri dituzte datozen egunetarako / 2

Etorri berriak euskarara erakartzeaz eta haiengana hurbiltzeaz hausnartuko dute / 3

Hiru hitzaldi eta bi kontzertu antolatu ditu Danok Kide elkarteak hilabete honetarako / 4

LOKEko gimnastak eta judokak txapelketa ezberdinetako podiumera igo dira / 10

Eguzki Bodegas Ayesak bigarren postuan amaitu nahi du Ligako fase erregularra / 11

Buruntzaldea IKTKo Iñaki Garciak domina uzta lortu du 31es Nautiques de Tarbes proban / 13

USURBILGO LANBIDE ESKOLAko
AURREMATRIKULA
24-25 ikasturtea
MAIATZAREN 6TIK 24RA

PRESENTZIALKI ZENTRUAN
 Hartu hitzordua 943 364 600 telefonoan.
 Astelehenetik ostegunera 8:30-17:00
 Ostiraletan 8:30-14:30

ONLINE

www.ikasgunea.euskadi.eus

TEL. 943 36 46 00

WWW.LHUSURBIL.EUS





Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideak prentsaurrekoaren unean, Zubietan. NOAUA! ALDIZKARIA

Erraustegira martxa, Okendotik, hilaren 18an

Erraustegira martxa deitu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, eta, horrekin batera, beste bi jardueren berri ere eman du Zubietan aurrera eramane duen prentsaurrekoan. Herritarrek horietan parte hartzera gonbidatu ditu

Txintxarri

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak agerraldia egin du, berriki, Zubietan. Datozen asteotarako bi deialdi egin dituzte, eta horietan parte hartzera deitu dituzte herritarrek.

Hilaren 18an izango da lehena, larunbatarekin. Erraustegi aurrean protesta egitera joateko asmoa azaldu dute, eta gipuzkoarrek bertan parte har dezaten nahi dute. Hitzordu hori, gainera, Lasarte-Oriako Okendo plazatik abiatuko da, 11:00etan. Agintariei, hondakin gehiago ez erretzeko eta erraustegia gelditzea galdegiteko helburuarekin aurrera eramango dute hitzordua. Gaineratu dute, Donostia Bizirik, Eguzki eta Ekologistak Martxan elkarteek babestutako ekintza dela. Horren aurretik, erraustegiaren aurkako urteotako borroka irudikatzen duten afixen erakusketatxoak ikusgai izango da.

Horrez gain, hilaren 23 eta 27rako, erraustegiaren kutsadura zertan den jakiteko, beste bi deialdi egin ditu; horietan lehe-


na Hernaniko Sandiusterreri aretoan izango da, eta bigarrena, berriz, Usurbilgo Sutegin. ToxicWatch fundazioko kideak izango dira protagonista nagusiak; azken bost urteotan erraustegiak sortutako kutsaduraren emaitzak eskainiko dituztela jakinarazi du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

Bost urtetako datuak

Arestian aipatu moduan, ToxicWatchek bost urtez jarraian egin die jarraipena "erraustegiaren kutsatzaileei"; urtero bildu ditu horiek aztertzeko laginak inguruko ur, erreketako sedimentu, lur, goroldio eta hautatutako zenbait landareetan, eta baita zenbait familiak autokontsumorako dauzkaten oilategietako arrautzetan ere. Horiek aztertu dituzte, ikusteko metal astun, dioxina, PCBak eta PFAS arrastorik ba ote duten; horri dagokionez, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak honakoa ohartarazi du: "ToxicWatchek jada aurreratu digunez, Zubietako erraustegia-

ren inguruan bildutako laginetan kutsadura igoera kezagarria aurkitu da". Hori azaltzeko zenbait daturen berri eman du mugimenduak prentsaurrekoan, hala nola, honako hau: "Arrautzei dagokienez, aztertutakoek dioxina eta PCB maila altuak dauzkate eta urte horietan igoera oso nabarmenak ikusi dira, jangarriak izateko muga legalak gaindituz".

Amaitzeko, hondakinak kudeatzeko erraustegia ez beste sistema "hobe, garbiago eta merkeagoak" badaudela nabarmendu dute mugimenduko bozeramaileek. Erraustegia "alferrrikakoa" dela azpimarratzearekin batera, hori gelditu egin behar dela ere aldarrikatu dute; eta, gaineratu dute martxan jarraitu bitartean, horren arduradunen lehentasuna izan behar dela emisioen kontrola jarraian egitea. Gauzak horrela, egingako aurkezpena amaitzeko, berriz ere deia egin diete herritarrei iragarritako ekimenetan parte har dezaten.



TXINTXARRI

Palestinaren alde, beste behin

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak manifestazio bat aurrera eramango du ostiral honetan *Rafah zutik! Palestina askatu!* lelopean. Okendo plazatik aterako dira manifestariak, 20:00etan eta herriko erdigunea zeharkatuko dute.



EAGI

Arkitektura ikasleak, EAGIn

Lasarte-Oriako EAGI ikastetxeak urteak daramatza Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoarekin elkarlanaren erakusle da urtero bi erakundeek antolatzen duten *Paperak aldatuz* jardunaldia. Bertan, lanbide heziketako ikasleak unibertsitatekoen irakasle bihurtzen dira egun batez eta honi esker etorkizuneko arkitektoek marrazten dutena eraikitzea uste baino konplikatuagoa dela ikasten dute. Pozik agertu dira, parte hartzaileak, aurtengo saioarekin.

Errigorako produktuen banaketa egingo dute asteotan

Lasarte-Oriako Errigorako taldeak olioak, kontserbak, pasta, arroza, lekaleak eta beste-lako produktuak banatuko ditu Ttakunenea elkartearen datozen egunetan. *Eskutik eskura* kanpaina "ederra" izan dela nabarmendu dute kideek eta eskerrak eman dizkiete egi-

tasmo hori babestu duten lasarteoriarrei.

Hau izango da banaketa egutegia. Hilaren 14an eta 15ean, 17:00etatik 20:00etara olioak banatuko dutela iragarri dute arduradunek. Gainerako produktuen (kontserbak, pasta, arroza, lekaleak, ardo sortak eta almendrak) banaketa, berriz, hilaren 21ean eta 22an egingo dute, ordutegi berean, 17:00etatik 20:00etara.

Etorri berriak erakarri eta haiengana hurbiltzeko

Udaletako Euskara Zerbitzuetako langileen topagune izango da Manuel Lekuona Kultur Etxea hilaren 16an eta 17an, XVI. Udaltop jardunaldietan. Oinarri teoriko, ikerketa eta praktika onak bilduko dituzte. 150 bat lagunek izena eman dute

Txintxarri

Hilaren 16an eta 17an aurrera eramango dute XVI. Udaltop, Manuel Lekuona Kultur Etxean. *Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta, euskaldunok, nola hurbildu etorri berrietara?* izenburupean, oinarri teorikoak, ikerketak eta praktika onak bilduko dituzte, pertsona horien harreraren fokua jarrita. Udal ugarietako Euskara Zerbitzuetako langileak elkartuko dira; antolatzaileek jakinarazi dute 150 bat pertsona inskribatu direla eta gehienek aurrez aurre jarraituko dituztela hitzaldi eta bestelako jarduerak. Zenbaitek, berriz, telematikoki parte hartuko dute, hala nola, CNPL Kataluniako Consorci per a la Normalitzacio Linguistica erakunde publikoko 50 teknikari inguruk.

Ihintza Arrieta Imatz kazetaria izango da aurkezlea eta erakunde hauek osatzen dute Udaltopen antolatzaileen sarea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak; Nafarroako Gobernuak; Euskal Hirigune Elkargoak; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundiek; eta Lasarte-Oriako Udalak.

Aipatu erakunde horietako zenbait ordezkarik aurrera era-



Ordezkarik politikoa, XV. Udaltopeko sarrera ekitaldian. TXINTXARRI

mango dute sarrera ekitaldia, hilaren 16an, 09:00etatik aurrera. Ondoren, hango eta hemen go aditu ugari hausnarketarako gako ugari emango dituzte, gai eta esperientzia desberdinak partekatuta ikus-entzuleekin. Esate baterako, Biltzen Fundazioako kide Javi Perezek Euskal Autonomia Erkidegoko harrera politikak diseinatzeko orientabideak emango ditu 11:30ean eta 45 minutu geroago Etorparri euskararen unibertsora hurbiltzeko bidez jardungo dira Lau-dioko Udaleko teknikari Felix

Mugurutza eta Aiaraldea Kooperatibako kide Aritz Lili.

Egun horretan nahiz hurrengoan beste zenbait hitzaldi aurrera eramango dituzte. Tarte horretan plazaratutako oinarri teoriko, ikerketa eta praktika onak biribiltze aldera, Imanol Epeldek itxiko du aurtengo Udaltop, *Ez badugu sinesten* izeneko saioa eginda 13:50etik 14:00etara. Egitarau osoa www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta dezakezue eta baita topaketa horiei buruzko albiste gehiago ere.



ERKETZ EDT

Erketz, 26. Dantzari Astean

Euskal Herriko 25 taldetik gora elkartu ziren hilaren 5ean Hernanin, bertako 26. Dantzari Astean parte hartzeko. Horietako bat izan zen Erketz EDT eta udalerrri hori koloreztatu zuen makina bat dantza eginda. Goizean auzoz auzo aritu ziren eta eguerdian aurrera eraman zuten ekitaldi nagusia, Gudariaren plazan. Bazkalostean erromeria ospatu zuten, jai giro ederrean. Ekitaldiaren albistea Hernaniko *Kronika* aldizkarian irakur dezakezue, esteka honetan: <https://kronika.eus/hernani/1714929792427-euskal-herriko-ehunka-dantzari-koloreztatu-zituzten-hernaniko-kaleak>.

Bestalde, Erketzek jakinarazi du hasi dela San Joan bezperako (ekainak 23) sokadantza prestatzen. Asteazkenero entseatzeko ari dira Garaikoetxea-Landaberri ikastetxean, 20:00etan. Ekitaldi horretan parte hartu nahi duen edonor joan daiteke prestakuntza saio horietara. Ekainaren 19an egingo dute azkena.



Zozketa!

ORE AMA OBRADOREAN erabiltzeko 30 euroko BONUA zozkatuko dugu izena ematen duzuen bazkideen artean.

harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943-37 14 48 zenbakira deituta eta 646 82 44 66 (whatsapp)

ORE
AMA

30€

OBRADOREAN
ERABILTZEKO



Bazkide zara?

Musikaz gozatu eta balioetan hezteko

Danok Kide elkarteak makina bat egitasmo prestatu ditu hilabete honetarako. Balioetan Hezi jardunaldien barruan hiru hitzaldi aurrera eramango ditu hilaren 13tik 15era, eta, egun batzuk geroago, XVIII. Musika Topaketan baitako bi kontzertu

Txintxarri

Sei hamarkada pasatxo daramatza Danok Kide elkarteak gure udalerrriaren giza eta kultur garapena sustatzen. Helburu hori duten makina bat jarduera aurrera eramaten ditu ikasturtez ikasturte, hala nola, Formakuntza Iraunkorra izeneko saio sorta, Gabonetako jaiotzen lehiaketa, Itsaspeko Zinema Zikloa (Realaren urpekaritza sailarekin eta udalarekin elkarlanean), *Lasarte-Oria* aldizkaria, Opera-Ballet zikloko emanaldi digitalak, Balioetan Hezi jardunaldiak edota Musika Topaketak.

Azken hiru egitasmo horiek hilabete honetan aurrera eramaten ari da Danok Kide. Hilaren 13tik 15era, esate baterako, XVIII. Balioetan Hezi jardunaldiak egingo dituzte, kultur etxeko hitzaldi aretoan. Hiru gairen bueltan hausnartuko dute: musikaren bidezko terapia, mota desberdinetako gaitzek eragindakoak tratatzeko; Txinako medikuntza



Balioetan Hezi jardunaldiko saioak kultur etxeko hitzaldi aretoan egingo dituzte. TXINTXARRI

tradizionalaren ezaugarri eta onurak; eta norberak bere emozioak ulertu eta kudeatzearen garrantzia, batez ere deserosoak direnak. Hiru solasaldi egingo dituzte, aipatutako egun bakoitzean bat, 19:00etatik aurrera

(xehetasunak alboko lauki arroseean irakur ditzakezue).

Hilabeteko azken astebururako, bestalde, XVIII. Musika Topaketen barruko bi emanaldi programatu dituzte elkarteko kideek. Irundik etorriko da Oiasso Ka-

merata orkestra hilaren 24an eta *Barroko ala ez Barroko?* emanaldia egingo du Ama Brigitarren komentuan, 19:30etik aurrera. Garai historiko horretako piezak dira kontzertuaren oinarria eta hortik abiatuta ikus-entzuleengan zalantzak eta plazera eragingo dituen proposamena ekarriko dute herrira. Bi egun geroago San Pedro parrokiaren ariko dira Easo Abesbatzako bi talde, Easo Eskolania eta Easo Kapera Gregorianista, 19:30etik aurrera. Musika elizkoiari buruzko emanaldi berezi bat aurrera eramango dute Ana Belen Garcia organo jotzailearekin batera.

Opera-Ballet zikloko hilabete honetako emanaldia hilaren 8an egin zuen Danok Kidek, udalarekin elkarlanean. Jonas Kaufmann tenore alemaniarraren *Opera Arena 100* kontzertua eman zuten kultur etxean, iazko abuztuan Veronako (Italia) anfiteatro erromatarrean grabatutakoa.

Herriaren alde lanean, 1962tik

Herriko guraso batzuek Familien Elkarte Katolikoa sortu zuten 1962an, Lasartek garai horretan zituen oinarritzko zerbitzuen eskasiari aurre egiteko asmoz. "Arazoak eragiten zituen horrek seme-alabak hezi eta herritarren elkarbizitza sustatzerakoan", gogoratu dute Danok Kideko lagunek (izen hori 1992an hartu zuten eragileak). Gure herria kudeatzen zuten udaletxeen utzikeria salatzeaz gain egitas-

Hitzaldi eta kontzertuak

Balioetan Hezi

- **Hilak 13, 19:00etan, kultur etxeko hitzaldi aretoan:** *Musikoterapia, pertsonen prozesua* hitzaldia. Miren Gabirondoren eskutik.
- **Hilak 14, ordu eta toki berean:** *Txinako medikuntza tradizionalari buruzko sarrera laburra*. David Egizabalen eskutik.
- **Hilak 15, toki eta ordu berean:** *Zergatik galtzen gara hainbeste buruko zarataren aurrean?* Amaia Urkizaren eskutik.

XVIII. Musika Topaketak

- **Hilak 24, 19:30ean, Brigitarren komentuan:** *Barroko ala ez Barroko?* emanaldia egingo du Oiasso Kameratak.
- **Hilak 26, 19:30ean, San Pedro parrokiaren aretoan:** Easo Eskolania eta Easo Kapera Gregorianistak kontzertua emango dute Ana Belen Garcia organo jotzailearekin batera.

mo ugari jarri zituzten martxan eta 1975ean 958 bazkide izatera iritsi zen.

Gipuzkoa Bertsotan fasean ariko da Lierni Rekondo, Oñatin

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara sailkatzen saiatuko da herritarra hilaren 17ko saioan; 19:00etan hasiko da

Txintxarri

Udazkenean jokatu dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Ziurra da data baina ez nortzuk parte hartuko duten, izan ere, hilaren 25ean hasi eta ekainaren 2an amaituko den sailkapen fase bat aurrera eramaten ari dira hori erabakitzeke: Gipuzkoa Bertsotan. Gauzak horrela, 74 bertsolari ariko dira koplaka hogeitazaitan, bi itzulitara. Bigarren errondara 48 pertsona sailkatuko dira eta horietatik 34k poltsikoratuko dute udazkeneko hitzordu handirako txartela. Partaideeta-



Rekondo, bertsotan. TXINTXARRI

ko bat izango da Lierni Rekondo lasarteoriatarra.

Herritarra B multzoan dago eta Oñatiko Santa Ana antzokiko saioan parte hartuko du hilaren 17an, ostiralarekin, 19:00etatik aurrera. Beste bost bertsolariarekin batera ariko da: Aimar Sorazu, Andoni Rekondo, June Aiestaran, Maddi Aiestaran eta Maide Garmendia. Bertsosarreak atarian eros ditzakete sarrerak, esteka honetan: https://www.beretosarreak.eus/sarreak/saioaren_ezaugarriak/670.

Aipatu sailkapen fasearen antolatzaile den Gipuzkoako Bertsozale elkarteak jakinarazi du 50 urte bete direla aurtan lurralde horretan lehen bertso eskola sortu zutenetik. Urteurren berezi hori "behar bezala" ospatzeko afari meriendak egingo dituzte saio bakoitzaren ondoren.



TXINTXARRI

Lurralde miresgarrian, bidaiaria

Ezezagunok Antzerki Elkarteak *Exactamente diversa* antzezlanaren ekarri du Manuel Lekuona Kultur Etxera. Adimen urriko aktoreek osatutako talde amateurrek antzeztutakoa Lewis Carrollen *Alizia lurralde miresgarrian* eleberrian oinarritutako obra da, nahiz eta istorioa bestelakoa izan. Alizia bakarria beharrean hiru dira protagonistak, berdin jantzita, baina izen desberdinekoak.

Udaberriko

Kontsumitu ezazu
Lasarte-Orian maiatzaren 13tik
25era, eta parte har ezazu
erosketa bonoen zozketan

festak

Lasarte - Oria 2024

2.000€

saritan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

MULTIÓPTICAS LASARTE	PELUQUERÍA MARBELL	NOGUES MODA
ZUBIETA MOTOR	MUEBLES ELBUME	DECO 75 TEXTIL HOGAR
LOTERÍA IZAGUERRI+C	MERCERÍA OLMÍ	NOAOA BIDAIK
TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK	MABEL MODA	CENTRO DE MASAJE KIMA
ZAPATERÍA ITURBE	ÓPTICA LIZARRI	ÓPTICA LIZARRI
SORAYA GALLEGU MICROPIGMENTACIÓN	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA	CALZADOS LEDER
ADMON. DE FINCAS MILLA	ELECTRICIDAD ARREGUI	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA
RESTAURANTE HERRIKO ETXEA	INMOBILIARIA RK	BOTE TATTOO
ARKUPE TABERNA	ORMAZABAL LORADENDA	URRUZOLA MERTZERIA
PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS	IMAGINE JANTZI DENDA	BIZKER RÓTULOS
ORUE BOTIKA	VENTANAS ISU LEIHOAK	SANTANA INFORMÁTICA
PLAN B KAFETEGIA	HIRU ALDETA TABERNA	BAR-CAFETERÍA BUS
VIÑA DEL MAR KAFETEGIA	AVENIDA TABERNA	OSTEOPATÍA NOELI CALERO
PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR	HAUNE INTERIORISMO	BAR ORIA-TXIKI
ALBA MODA	MERCERÍA ARITZA	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL
PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA	HALCÓN VIAJES	ARIMA GASTROTABERNA
CAFÉ-BAR BUENETXEA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA	BERASATEGI KAFEAK
PELUQUERÍA MANÍ'S	GIMNASIO SAITO	AMA YOGA
CLINICA DENTAL ALDAZ	NATURHOUSE	ARAETA SAGARDOEGIA
PELUQUERÍA BEA	FARMACIA ELI LASA	ADMINISTRACIONES BARDAJI
GESTORÍA BETELU	PERFUMERÍA MAIANE	FERRETERÍA SUKOA
ÓPTICA IRIGOYEN	EGUZKI TABERNA	ADATS ORRAZTEGIA
VENTANAS ALCAR	ORBELA EKODENDA	BIDEO LAGUNAK
NORTH TEAM NUTRIZIOA	DULCE TENTACIÓN	ACADEMIA DE INGLÉS STRATFORD



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea



Goiz osoan zehar jende dezente bertaratu zen Azkorterera, erromeriaz gozatzera. TXINTXARRI



11:00etako mezak ireki zuen erromeriako egitaraua. TXINTXARRI



Herri kirolen erakustaldiko uneetako bat. TXINTXARRI

Azkorterera bidean, aldaparik ez

Maiatzeko lehen asteburua egutegian markatuta dute herritar askok. Hilabeteko hirugarrena Santikurutz eguna da eta horrek erromeria esan nahi du. Ohi bezala, hurrengo igandean burutu dute festa Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak, baselizaren aurrealdean

Maitane Aldanondo

"Gogoko bidean, aldaparik ez" dio euskal atsotitzak, eta maiatzeko lehen igandeko erromeria honen zaleek antzera pentsatuko dute. Izan ere, oinez igotzeko ohitura aski zabaldua bada ere, adinean gora egin ahal nahia ez da nahikoa izaten eta ibilgailuren baten beharra izaten dute batzuek. Autobusaren alde egin ohi dute askok, baina, aurten, tamalez, ez da autobusik izan, eta ondorioz, batzuek ezin izan zuten ermitarako bidea egin. Hala ere, ez zen alde handirik nabaritu, asmoa izanda, hura betetzeko bidea topatu ohi delako.

Erromeria hasi baino pare bat ordu lehenagotik lanean aritu ziren Ttakun KEk jarritako postuan eta inguruan dena prest egon zedin. Goiz iritsi ziren lehen mendizaleak eta bisitariak, bai-

na batzuek jaiaren berri ez zutelaren aitortu zuten. Taldetxoan heldu ziren txirindularietako batek arrazoia galdetu zuen bitzian lehengoz ikusi baitzuen ermita irekita. Aukera ez du galdu eta barrua ezagutzera sartu zen ezustekoaren harri-dura gainditzen ari zela. Horri lotuta, baselizaren ate ondoan plaka bat jarri dute, eraikin horri buruzko informazioa duena: antza denez, 1625. urtekoa da "Buruntza mendiaren oinean zegoen Azkorte Santa Kruz izeneko ermitaren aipamenik zaharrena". Barruan dagoen Gurutze Santuko Kristoren irudia, berriz, XIII. mendekoa da. "Goraberehera asko ikusi eta jasan ondoren [gerrak, lapurreak eta izurriteak]", 1973an jarri zuten berriz "zegokion tokian", baseliza berria 1973an inauguratu zuten.

Mezaren ordua gerturatu ahala jende gehixeago iristen joan zen, sakabanatuta. Batzuek tontorrera jarraitu zuten, beste batzuek mokadua egitea hobetsi zuten edo trikitalariak entzutea, herri kirolen erakustaldirako prestaketei begira.

Alboka abesbatzak girotu zuen meza, "aingeru korua" apaizaren esanetan, elizkizunaren zenbait unetan kantatuta. Azken bedekapenaren ondoren, egun ona pasatzea opa izan zien denei apaizak, eta gelditu zirenek, behintzat, horretarako aukera izan zuten. Horretarako, askoren lehen osagaia Ttiriki Ttarraka eskolako bikoteak girotutako hamaiketako izan zen. Odolki edo txorizo pintxo eta edariak izan zituzten aukeran, eta haiek prestatzen eta zerbitzatzen aritu ziren barra atzeko lau lagunak. Atsedean gutxi izan zute tarte



Edari freskoak eta pintxo goxoak eskatu zituzten mendizaleek tabernan. TXINTXARRI

batez antolatzaileei laguntzen aritu ziren Alex Ramosek eta Itxaso Irazustak.

Herri kirolen txanda

Sabela bete eta eztarria freskatzeko lanpetuta zeudelako edo, kosta egin zitzaion jendeari dantzara animatzea. Azkenean, taldetxo batek erabaki zuen saiatzea. Ez zuten luze aritzerik izan, ordea, eguerdiarekin batera herri kirolen txanda heldu baitzen. Beñat Telleria herri jasotzaile lasarteoriatarak erakustaldia egin zuen, Julen Gabirondo eta Jokin Basozabal aizkolariekin batera.

Hiruna ariketa egin zituzten, txandaka. Aizkolaria hasi ziren, ea nork kolpe gutxiagoz

enborra moztu, ondoren, denbora gutxienean, eta azkenik, hiru enbor nork lehenago ebaki. Telleriak, berriz, ahal beste altxaldi egin zituen bi minutuan 150 kiloko laukizuzenarekin, 125 kiloko zilindrikoarekin, eta azkenik, esferikoarekin. Azken ariketa amaituta, agurra egin zuen harriarekin. Txalo artean eskertu zieten ikusleek egindako ahalegina.

Erakustaldiaren ondoren, askok beherako bidea hartu bazuten ere, trikiti eta pandero doinuak bueltatu ziren oholtzara. Gelditu zirenek edo tontoretetik jaitsitakoek azken jan-edana egiteko aprobetxatu zuten; eta poliki-poliki, ingurua husten joan zen.

Bizilagunek, bizilagunentzat

Udaberri Festa ospatu dute

Iñigo de Loiola Bizilagun Elkarteak (ILBE) Udaberri Festa antolatu du, bigarreniz. Konfinamenduan ehundutako eta estututako harremanak mantendu eta giro alai batean ospatzeko xedez, iaz abian jarri zuten. Orduan ez bezala, aurten beraiek nahi zuten datan, maiatzeko lehen larunbatean, burutu ahal izan zute. Oriarteko patiotik beraien kalera eraman zute jaia, baina giroa ingurukoetara ere hedatu zuten. Plazan prestaketetan murgilduta zirela, Ankoker Trikitixak diana egin zuen auzoan barrena. Musiak jendea ohartarazi eta jaiaren gune nagusira bideratu zituen, euriari aurrera egitera animatuz. Pintxo potea izan zuten lehen hitzordua. Iñaki tabernako kideek urdaiazpikoa moztu, eta platerxoetan jarri zuten nahi zuenarentzat; barran aukeran zuten ere Etxezarreta harategiko txorizo egosia edota Hirualdeta tabernak egindako tortilla pintxoak.

Atzerapen pixka batekin haurren jolasak egokitu zituzten karpa azpian eta pare bat orduz nahi bestetan aritu ahal izan zute. Etxebizitzaren arkupearen beste aldean, bizkotxo lehiaketan parte hartu zutenek utzi zituzten beraien aleak, guztira, 30. Bi kategoriatan bereizi zituzten: helduak eta haurrak. Sariak nori eman ebatzi bitartean LOZET elkarteko buruhandi eta erraldoiak ibili ziren auzoan. Goizean erabilitako indarrak berritzeko paella jan zuten herritarrek; hiru prestatu zituzten 220 lagunentzat. Bazkalostean bingoan jokatu zuten giro paregabea; sari ugari banatu zituzten. Motorrak piztuta, festa iluntzera arte luzatu zuten, DJ Karpinen musika eta Yon Pavonen mojitoak lagun.



Pintxo goxoak eta edari freskoak zerbitzatu zituzten tabernako barran. TXINTXARRI



Buruhandi artean gustura ibili ziren gaztetxoak. TXINTXARRI



220 lagun animatu ziren paella jatera. Bazkalostean bingoan jokatu zuten, giro paregabea. Sari ugari banatu zituzten. TXINTXARRI



Egun osoan zehar primeran ibili ziren Udaberri Festara bertaratu ziren herritarrak. TXINTXARRI



Goiko irudian, bi haur, jolasten. Azpikoan, bizkotxo lehiaketako epaile eta sarituak. TXINTXARRI



Sudokua eskura

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKURA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, S, K, U, R eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Pareak

HAMAHIRU!



Hauek bai zortea!


Seina beso, aizue! Eta den-dena eskura, ezta? Aurki itzazu bi Shiva hauen artean dauden 13 aldeak.

Handienetik txikienera

Ordenatu eskuok handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.



Zomorroak Labirintoan



Hiru xomorrotxo hauetatik bat labirintotik aterako da, beste bat etxera iritsiko da eta hirugarrena harrapatuta geldituko da labirintoan. Ea identifikatzen dituzun.




Zertarako erabiltzen dituzu eskuko hatzak? Gitarra jotzeko? Muki lehorrak ateratzeko? Arkatzei eusteko? Bada, batzuek ipuintxoak asmatzeko ere baliatzen dituzte. Hatz bakoitzean pertsonaia bana marraztu, eta istorioak kontatzen hasten dira. Hemen azpian esku baten ertza dago. Hiru pertsonaia ditu: Txirrita bertsolaria, Altzoko Handia eta Margarita Nafarroako azken-aurreko erregina. Bostekoa osatzeko beste bi pertsonaia falta dira. Egin itzazu zure gustukoak.

Pertsonaiez gainera, marraztu eskumuturreko bat, eraztun polit bat eta ia esku osoa beteko duen tatuaje bat. Ondo margotu.

Hatz-aztarnak gizaki bakoitzaren ezaugarri behinenak omen dira: norik bereak ditu eta ez omen daude bi berdin. Baina hemen hatz-aztarna guztiak bi aldiz ageri dira, bat izan ezik. Zein da?

Kontai!



NIK BADAKIT!!

Bakoitzari berea

Ezagutzen al dituzu eskuko hatzen izenak? Hala bada, lotu hatz bakoitzari bere izena. Batzuek izen bat baino gehiago dute.



TXIKIA

ERPURUA

NAGIA


ERAKUSLEA

BIZKORRA

LUZEA

LODIA

HANDIA



LOKEko amateurrek domina ugari lortu dituzte

Lasarte-Oriako gimnastek amateur mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatu dute. Maila ezberdinetan podiumera igo dira kirolariak bakarka zein taldean. Hilabete amaieran jokatu den Euskadiko txapelketarako sailkapena ere eskuratu dute guztiek

Txintxarri

Gimnastikako Amateur mailako Gipuzkoako txapelketako finala lehiatu zuten, hilaren 5ean, Tolosako Uzturpe pilotalekuan.

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) kirolariek maila ezberdinetan parte hartu zuten eta euren lanei esker, dominak eskuratu zituzten (Ikus azpiko taula). Hala nola, senior mailako Mirian Prieto zein Kadete C mailako LOKE 1 taldea podiumeko gorenera igo ziren sailkapen orokorrean; Aitana Molano jubenila, aldiz, pilotana izan zen txapelketa.



Prieto, podiumean. LOKE GIMNASTIKA

LOKEko arduradunak pozarren daude gimnastek egindako lanarekin. Izan ere, guztiek eskuratu dute hilaren amaieran Euskadiko txapelketan parte hartzeko txartela. Hala ere, taldeko prestazaileek jakinarazi dutenez, "kadete C mailako taldeek ez dute parte hartuko B mailakoen aurka egin beharko luketelako".

Aurretik, hilaren 11n, eskolarteko mailako gimnasten txanda izango da Irunen. Horiek ere Gipuzkoa onenen artean egotea lehiatuko dira.



Ezkerrean, Ekain Luis podiumean. Eskuinean, Valeria eta Ivan dominekin. LOKE JUDO

LOKEko kideek dominak eskuratu dituzte txapelketetan

Ekain Luisek zilarrezko domina jantzi du, Tomelloson; Valeria eta Ivanek, aldiz, Gipuzkoako txapelketan

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Judo saileko kideek alebin mailako Gipuzkoako txapelketa zein junior mailako Espainiako Kopako jardunaldi berriari egin zioten aurre hilaren 5ean.

Tomellosora (Ciudad Real) egin zuen bidaia LOKEko kide Ekain Luisek junior mailako Espainiako Kopa lehiatzera eta ez zen esku hutsik itzuli; zilarrezko domina jantzi zuen. 100 kilo baino gehiagoko mailan parte hartu zuen judoka gazteak eta Extremadurako Joao Pedro Herenciaren borrokatu zen finalean. LOKEko kideak ezin izan zuen aurkaria gainditu eta bigarren postua eskuratu zuen.

Alebin mailako judoka gazteak, aldiz, Urnietan bildu ziren Gipuzkoako txapelketa zein Kopa lehiatzeko.

Bi lehiaketetan bikain egin zuten borroka judoka gazteak eta Valeria eta Ivan kideak podiumean izan ziren. Valeria Gipuzkoako txapelketa izan zen eta Ivanek brontzezko domina jantzi zuen.

Beterano kopa

LOKEko gaztetxoek ez dute lehiaketarik izango, baina hilaren 11n, beterano mailako Gasteizko Espainiako Kopa jokatu da. LOKEko kide Asier Sagastik M1 kategoriako 100 kilo baino gutxiagoko lehiari parte hartuko du.

- **Master A**
Paula Martinez - uztai 6^a; zinta 5^a; orokorra 6^a.
- **Senior A**
Mirian Prieto - uztai 3^a; zinta 1^a; orokorra 1^a.
- **Jubenil A**
Noa Del Amo/Saioa Boyero - zinta 2^a; pilota 3^a; orokorra 3^a.
- Erika Tejero - zinta 5^a; pilota 6^a; orokorra 6^a.
- **Jubenil B**
Aitana Molano - zinta 9^a; pilota 1^a; orokorra 3^a.

LOKE - uztaiak eta pilotak 5^a

- **Kadete A**
Maitane Sarmiento - uztai 4^a; borra 4^a; orokorra 4^a.
- **Kadete B**
LOKE - bost pilota 4^a.
- **Kadete C**
LOKE1 - bost pilota 1^a.
LOKE 2 - bost pilota 5^a.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Hernani CD B Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunea.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Axular KKE Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunea.
ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA
Texas Lasartearra CF - Eibararrak FT Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunea.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Pasaia KE B - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Jesus Mari Zamora. Errenterian.
OHOREZKO JUBENILA
Martutene KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Martutene, Donostian.
JUBENILEN I. MAILA, IGOERA
Elgoibar CD B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 17:30. Mintyeta, Elgoibarren.
Ostadar SKT B - Antigua Luberrri KE Igandea. 10:30. Michelin kirol gunea.

JUBENILEN I. MAILA, GIP. KOPA
Antigua Luberrri KE B - Ostadar SKT C Larunbata. 15:30. Berio, Donostian.
OHOREZKO KADETEA
Ostadar SKT - Lengokoak KE Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunea.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Lauburu KE Ibarra Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Antiguoko KE - Eguzki B. Ayesa Larunbata. 14:00. Pio Baroja, Donostian.
SASKIBALOA
III. MAILA
Druck Hoops - Ostadar SKT Larunbata. 20:00. Altza kirol., Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Hemen Garbiketak Eskoriatza KE - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA, FASE FINALA
Ostadar SKT - Ordizia Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
K. PARTAIDETZA. 3. POSTUA
Bera Bera Albistur - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Paco Yoldi, Donostian.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA
Ostadar SKT - Ipar Titanak Igandea. 11:30. Udal kirol., Hernanin.
JUBENIL MAILA, 11-14 P.
Ostadar SKT - Aiztondo NK Larunbata. 17:00. Maialen Chourraut kirol.
I. MAILA, FASE FINALA
Ostadar SKT - Aiztondo NK1 Larunbata. 12:00. Pio Baroja, Donostian.
PILOTA
LAU TERDI TX., 2. MAILA
Intza KE (Diaz de Gereñu) - EPLE Larunbata. 11:15 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.

UDABERRI TX., INFANTILAK, 2. MAILA
Oiarpe 1 - Intza KE 2 Larunbata. 17:30 (3. partida). Oiarzunen.
Tolosa 2 - Intza KE 1 Igandea. 11:00 (1. partida). Tolosan.
UDABERRI TX., INFANTILAK, 3. MAILA
Oiarpe - Intza KE Larunbata. 17:30 (1. partida). Oiarzunen.
ERRUGBIA
16 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Envases RC Rioja Larunbata. 11:00. Asti, Zarautzen.
GIMNASTIKA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko gimnastek eskolarteko txapelketako finala lehiatuko dute. Larunbata. 10:00. Artaleku kirol., Irunen.
JUDO
ESPAINIAKO KOPA
LOKEko Asier Sagasti judokak

beterano mailako Espainiako kopako jardunaldian parte hartuko du. Larunbata. 15:00. Gasteizen.
AUTOMOBILISMOA
FITOKO IGOERA
Aitor Manso herritarra Espainiako Mendi igoeretako ligako Fitoko igoeran lehiatuko da. Larunbata eta igandea. Ariondas, Asturiasen.
ATLETISMOA
PROBA LIBREAK
Herriko atletek proba libreetan parte hartuko dute. Larunbata. 15:30. Miniestadioa, Donostian.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Herriko atletek alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketa azken jardunaldia jokatuko dute. Igandea. Goiza. Irunen.
EUSKADIKO TXAPELKETA
Mari Carmen Olasok master mailako Euskadiko txapelketa lehiatuko du. Igandea. Goiza. Durango, Bizkaian.

Eguzki Bodegas Ayesa, bigarren postuaren bila

Gazteen mailako taldeak 3-0 irabazi dio Zarautz Gran Camping ekipoari eta azken fasea jokatzen saiatu dira lasarteoriatarrek. Ligako azken jardunaldian Antiguokoren aurka neurtuko ditu indarrak; garaipena eskuratzuz gero, sailkapenean bigarren izango da

Txintxarri

Eguzki Aretoko Futboleko taldeak lehiaketako azken astean sartu dira. Gazteen mailako Eguzki Bodegas Ayesa da horietako bat. Hilaren 4an, Francisco Javier Kixki Perezen taldea Zarautz Gran Camping-en aurka lehiatu eta 3-0 gailendu zen Maialen Chourraut kiroldegian.

Zarautz aurkari arriskutsua da Eguzkiko prestatzaileak azaldu duenez: "Ideia garbiak ditu, atzean defendatzen du eta besteen hutsak ongi baliatzen ditu neurketak irabazteko. Gainera bi atezain on dituzte; sake luzeak egin eta arazoak sortzen dituztenak". Eta hori jakinda, presio altua eginez jokatzen agindua eman zien jokalariei. Eraso itxiek Zarautzen defentsan hutsuneak sortzen saiatu ziren gazteak eta pixkanaka lanak bere fruitua eman zuten.

Zarautzek ere kontraerasoak egin zituen eta 15. minutuan, partida aldatu ahal izan zuen jokaldia gertatu zen; Eguzkiko atezainak areatik kanpo baloia ukitu zuen. Bigar-



Jokalariek baloia jokatzen. TXINTXARRI

ren atezaina atera behar izan zuen etxeko taldeak eta Zarautzek bere aldeko falta bat zuen. Zorionez, baloia ez zen sarean sartu eta neurketak ordura arteko dinamika jarraitu zuen. Atsedenerako lau minutu geratzen zirela, Eguzkiren aldeko falta bati esker, aurre hartu zuen Kixkiren taldeak.

Bigarren zatian, Zarautzek defentsa aurreratu zuen eta gehiago ireki zen. Horri esker, Eguzkiko jokalariek errazago iritsi ziren atera aukera ugari sortuz eta ondorioz bigarren gola egin zuen etxeko taldeak.

Zarautzek, orduan, Eguzkiren taktika erabili zuen, presio altua. Horri esker, kontraeraso batean hirugarren gola egin zuen Eguzkik.

Nahiz eta garaipena eskuan izan, oraindik hamalau minutu falta ziren norgehiagoka amaitzeko eta Eguzkik neurketa kontrolpean izateko egin zuen lan. Ongi jardun ziren, Julen atezainaren lana nabarmendu du prestatzaileak eta hiru puntuak etxean geratu ziren.

Ligako azken jardunaldian Antiguokoren aurka neurtuko ditu indarrak gazteen taldeak. Partida horren arabera bigarren edo hirugarren postuan amaituko du liga erregularra. Baina dagoeneko azken faserako sailkapena eskuratu du Eguzkik. Horregatik, gazteen taldeko prestatzaileak jokalariei eskerrak eman nahi dizkie: "Lan ederra egin dugu denboraldi osoan. Bigarren itzuli izugarria egin dugu eta lau puntu bakarrik galdu ditugu. Ez da erraza izan baina lehen postuetan gaude".

Lasarte-Oriako atletak ederki jardun dira lehia ezberdinetan

Pirinioen arteko Trofeoan eta infantil mailako klubaren arteko Gipuzkoako txapelketan parte hartu dute herritarrek

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak txapelketaz betetako hilabete hasiera dute. Maila ezberdinetako lehiaketak edo Gipuzkoako selekzioarekin hitzordua izango dituzte kirolariek.

Hilaren lehenean, Ostadar SKTko hiru kide Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu ziren Donibane Lohitzunen. Pirinioen arteko trofeoan parte hartu zuen taldeak Nafarroa eta Iparraldeko Wasconiaren aurka eta Gipuzkoa garaile izan zen. Oinatz Almagro, Eider Redondo eta Aiala Ramosek euren harritxoak jarri zuten garaipenean. Lehen biek luzera jauzi proba egin zuten eta Ramosek xabalina jaurtiketa.

Atletismo eskolako gaztetxoek ere lehiaketa izan zuten hilaren 5ean, infantil mailako eskolarteko eta klubaren arteko Gipuzkoako txapelketa.

Talde urdin-beltzeko neskek bosgarren postuan sailkatu zuten. Mutiletan 4x80 m. erreleboa bakarrik aurkeztu zuten taldeak.

Hodei Murgiondo lasarteoriatarra, aldiz, seigarren izan zen bere taldearekin, Atletico San Sebastianekin. Gazteak 80



Gipuzkoarekin lehiatu ziren kideak.

m. hesi proban parte hartu zuten.

Txapelketa gehiago

Hilaren 11n, herritar federatuek proba libreak dituzte Donostia-ko miniestadioan.

Igandean, hilaren 12an, alebin eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia-ri egingo diete atleta gazteek, Irunen.

Eta egun horretan bertan Master Mailako Euskadiko txapelketa lehiatuko da Durangon (Bizkaia) eta Atletico Renteria-ko Mari Carmen Olaso herritarra izango da lehian.

Ostadar Saskibaloiko taldeak azken jardunaldian sartu dira

Kadete Errendimendu taldea txapelketako finalerdiak jokatzen ari da. Joaneko neurketan Ordizia izan da garaile

Txintxarri

Ostadar Saskibaloiko saileko taldeak denboraldiko azken jardunaldia jokatzen ari dira maiztzeke lehen asteetan. Bada bere mailako azken fasea lehiatzen ari denik ere, Kadete Errendimendu taldea kasu.

Fase erregularra bere multzo-ko lehen amaitu ostean, azken faserako sailkatu eta Ordiziaren aurka joan-etorriko kanporaketa jokatzen ari da Jonatan Reinos zuzentzen duen taldea.

Hilaren 4an, Ordizian eman zion hasiera final erdiak

lehiari eta aurkaria nagusi izan zen, 62-27.

Ostadarreko taldeak zail izango du etxean kanporaketari itzulia ematea, baina borrokatzeke prest dago. Hitzordua hilaren 12an, 09:30ean izango da Maialen Chourraut kiroldegian.

Denboraldiari, agur

Talde urdin-beltzeko ordezkari batzuk lehian ari diren arren, beste batzuk amaitu dute.

I. Senior mailako taldearen kasua da azken hori. Beñat Eleicegui eta Gaizka Urreiztik zu-



I. Senior mailako taldeak maila mantentzea lortu du. OSTADAR SASKIBALOIA

zentzen duen taldeak ezin izan zuten Goierri gainditu etxean jokatutako azken neurketan. Aurkaria nagusi izan zen hasieratik eta 34-76 gailendu zen. Hala ere, liga bederatzigarren postuan

amaituta, maila mantendu du talde urdin-beltzak.

Infantil Errendimendu Urrea mailako taldeak ere etxean jokatzen duen denboraldiko azken neurketa. Yoga Shala Askatuak

taldea izan zuen aurkari. Donostiarrek indartsu hasi zuten neurketa eta nahiz eta partidako bigarren zatian etxeokak hobeto jardun, lehen laurdenan eskuratutako errenta ongi mantendu zuten. 41-51 amaitu zen lehia.

Txanponaren beste alde bizi izan zuen maila bereko partaidetzako Ostadar Beltzak. Lehen zatia 23-23 berdinduta amaitu ostean Luberri Ibaeta Jakibai taldea 47-55 gainditu zuten urdin-beltzek, ederki borrokatuta.

Horrez gain, saski eskolako kideek ere azken topaketa izan zuten Donostiako Mons kiroldegian, hilaren 5ean. Ostadarreko kideez gain, Aldapeta Maria, Askatuak, ISB eta Ibaeta Eskola Luberri Maria taldeak izan ziren eta ederki gozatu zuten sakibaloian jokatzen.

Ostadarreko Kadete C, Udaberri Kopatik kanpo

Talde urdin-beltzak Udaberri kopako final laurdena jokatu du Billabona Bren aurka. Bi taldeak ederki borrokatu dira eta gol aukera ugari ikusi dira Michelin kirol guneko zelaietan. 0-1eko emaitzari esker, aurkariak lortu du finalerdietan lehiatzeko txartela

Txintxarri

Nahiz eta ederki borrokatu, Ostadar SKTko Kadete C taldeak ezin izan zuen Udaberri Kopako kanporaketetan aurrera egin. Final laurdenetan Billabona B izan zuen aurkari Michelin kirol gunean eta gol batengatik lehiaketa utzi behar izan dute urdin-beltzek.

Bi taldeak garaipena buruan, eta indartsu atera ziren jokora. Zelai erdialdean baloia batetik bestera zihoan eta eraso zein kontraerasoak ugariak izan ziren bi aldeetan. Baloia ez zen sarean sartu, ordea; bi taldeetako atezain zein defentsaren lanek atsedena dira husnako berdinketarekin iristea ekarri zuten.

Bigarren zatian ere jokoak berdin jarriatu zuten. Tamalez, 78. minutuan, Billabonak atea aurkitu zuen. Etxeko taldeak ez zuten amore eman eta berdinketako gola bilatu zuen azken minutura arte. Ez zen posible izan,



Billabonako defentsak Ostadarreko kadeteen erasoak geartu zituen. TXINTXARRI

ordea eta ondorioz, lehiaketari agur esan dio Kadete C taldeak.

Kanpoan garaipena

Maila bereko gainerako taldeek zorte ezberdina izan zuten Gipuzkoako Kopako neurketetan: garaipen bat eta bi porrot.

Etxean jokatuak partidetan aurkako emaitzak eskuratu zi-

tuzten bai Texas Lasartearra CFk, baita Ostadar nesken taldeak ere. Zuri-urdinek neurketa borrokatuan 1-2 galdu zuten Orioko Bren aurka eta urdin-beltzen kasuan, Oiartzun B 1-4 gailendu zen.

Ostadar B taldeak, aldiz, Lazkao Bren aurka gogor lehiatu eta 1-2 irabazi zuen.

Familia Mendi martxako izen ematea ireki du LOTMEk

Ekainaren 23an izango da Buruntza mendira igotzeko martxa. Parte hartzaileen artean opariak zozkatuko dira

Txintxarri

Lasarte-Oria Mendi Elkartek (LOTME) auren ere San Pedro jaien aurrekari modura, Lasarte-Oriako familia mendi martxa antolatuko du. Hitzordua 2024ko ekainaren 23an izango da. Ibi-laldiak hamabi kilometro eta +490 m-ko desnibel positiboa izango ditu eta ez da lehiakorra izango.

Ekimen horren helburuak mendian familian kirola egitea bultzatzea, Lasarte-Oria inguru ingurune naturala ezagutaraztea (Benedika, Azkorte-

ermita, Buruntza...) eta herriko merkataritza dinamizatzea dira.

Izen emate epea ireki da eta ekainaren 20ra arte izango da aukera inskripzioa egiteko.

Horrez gain, antolatzaileek hainbat material zozkatuko dute familien artean. Saritutakoek beren oparia jaso dezakete martxa amaitzean.

Izen ematea kirol elkartearen webgunean edo zirkuituak.com orrialdean egin daiteke; doakoa da eta ekainaren 22an itxiko da epea.



E. MARTIN

Ucerok, brontzea Euskadiko txapelketan

Halterofiliako Euskadiko Txapelketa Nagusia lehiatu zen hilaren 4an, Barakaldon (Bizkaia). Danok Danena taldeko Pablo Ucerok herritarra Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu zen 73 kilo azpiko kategorian eta brontzezko domina jantzi zuen. Peter Cubillo bizkaitarra eta talde kide Igor Sasian izan ziren lehen eta bigarren mailan, hurrenez hurren.

Texas Lasartearraren erakartze saioak

Texas Lasartearra CFk erakartze jardunaldiak egingo ditu ekainaren 10etik 14ra, Michelin kirol gunean.

Mailaren arabera saio ezberdinak egingo dituzte:

- Alebinak: astelehena, 17:00etatik 18:30era; asteazkenean, 18:30etik 20:00etara.

- Infantilak: astearte eta asteazkena, 17:00etatik 18:30era.

- Kadeteak: astearte, ostegun eta ostirala, 18:30etik 20:00etara.

- Jubenilak: astelehena, 18:30etik 20:00etara; ostegun eta ostirala, 20:00etatik 21:30era.

- Erregional mailakoak: astelehenean, 20:00etatik 20:30era.

Kirol elkarteko arduradunek jakitera eman dute euren taldeko kide izan nahi duten guztiak entrenamenduetarako kirol arropa eraman behar dutela eta adierazitako ordua baino hamar minutu lehenago zelaira agertzea nahikoa dela.

Zaletuei deialdi berezia hilaren 11rako

Ostadar SKT Erregional Gorengo taldea animatzeko deialdi berezia egin die zaletuei. Izan ere, Jon Iruretak zuzentzen duen taldeak partida garrantzitsua du azken aurreko jardunaldian. Usurbilen aurka bana berdindu ostean, garaipena lortu behar du bere multzoko lehen bi postuetan egoteko. Axular KKEren aurka neurtuko ditu indarrak eta zaletuen laguntzaz norgehiagoka gainditu nahi dute.

Elkarte urdin-beltzeko arduradunek ohar bitartez azaldu duten moduan, "taldeak hilabeteak daramatza Ohorezko Erregional mailara igotzeko ahaleginetan eta guztion babesa beharko du". Horregatik zaletuak gonbidatzen ditu larunbat honetan, hilaren 11n, arratsaldeko 18:40ean Michelin kirol gunera bertaratu eta taldea babestera.

Horrez gain, gainerako taldeentzat denboraldiko azken partida dela gogoratu du oharrean eta etxean jokatzeko dituzten neurketetara hurbiltzeko deia ere egin du (ikus agenda). Horrela, kamiseta urdina soinean, Ostadarreko taldeak errespetuz eta gogoz animatzera bultzatzen ditu zaletak.



TXINTXARRI

Hondartzaz gozatzeko

Beltzak Errugbi eskolako gaztetxoek topaketen denboraldiari amaiera eman zioten, hilaren 5ean. 14, 12 eta 10 urtez azpiko gazteak, Zarautz Errugbi eskolako lagunekin batera, Kontxako hondartzako trofeoan parte hartu zuten. Gipuzkoa, Nafarroako zein Iparraldeko taldeen aurka neurtu zituzten indarrak. Partidak amaitzean hirugarren denboraz gain, giro ona baliatuz bainutxo bat ere hartu zuten.

Garciak, dominak eta marka berriak Tarben

Buruntzaldea IKTko Iñaki Garcia Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu da Tarbe, Frantzia. Guztira, bost domina jantzi ditu hiru banaka eta bi erreleboetan. Parte hartu duen banakako probetan gainera bere marka pertsonala ondu du igerilari gazteak

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko kideek hiru hitzordu izan zituzten hilaren 4an eta 5ean. Taldeko igerilariak guztietan ederki jardun ziren; nabarmenezkoa da Iñaki Garciaren lana. Garcia 31es Nautiques de Tarbes proban lehiatu zen Gipuzkoako selekzioarekin, Tarbe (Frantzia). Bikain lehiatu zen gaztea; bost domina jantzi zituen: hiru urre, zilar bat eta brontze bat.

Garciak banakako lau probatan egin zuen igeri, lauetan bere marka ondu zuen eta hiruretan infantil mailako podiumean izan zen.

50 m. libre proba lehiatu zuen lehena eta bai sailkapen saioan baita finalean ere bere marka hobetu zuen igerilari gazteak. Gainera, 25,62ko denbora eginez, urrezko domina jantzi zuen.

Nahiz eta lehen postuetan ez egon, 200 m. libre proban ere marka berria ezarri zuen, 02.05,20 eta estatu mailako txapelketan parte harteko gutxieneko denbora igeri egin zuen Garciak.

50 m. bizkar proban zilarrezko domina jantzi zuen sailkapen proban gainditutako marka pertsonala ehuneko batean onduz (30,79) eta Espainiako txapelketako gu-



Garcia, podiumean. BURUNTZALDEA IKT

txienekotik lau ehunekoetara geratuz.

Banakako probekin amaitzeko, Buruntzaldea IKTko kideak 100 m. libreko lehiatan lehen postua eskuratu zuen. Gainera, bere marka bitan gainditu zuen; sailkapen saioan 56,85 egin zuen eta finalean, aldiz, 56,81.

Lehiatu ziren bi erreleboetako kide ere izan zen Buruntzaldea IKTko gaztea. 4x100 m. libreko lehiatan hirugarren izan ziren eta 4x100 m. lau estiloko saioan, berriz, lehenak izan ziren. Azken postua egin zuen azken horretan Garciak, 100 m. librean.

Garciak Espainiako txapelketarako gutxieneko gehiagok eskuratzeko lan egingo du hurrengo asteetan. Aukera berria hilaren 18an izango du Irungo San Marcial Sarian. Garciarekin batera igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutu mailako kideak ere lehiatuko dira.

Taldeko txikiek, aldiz, euren ligei amaiera eman zieten Tolosan. Benjaminek lau estilo eta tximeleta proba ezberdinei egin behar izan zieten aurre; estilo zail horietan txukun aritu ziren.

Alebin mailan, banaka 400 m. edo 100 m. lau estilo probak eta 200 m. libre saioan egin zuten igeri parte hartzaileak. Bi errelebo ere izan zituzten; estilo libreko zein lau estilo 4x100 m. probak. Eta lehen postuetan izan ziren igeriketa taldeko kide batzuk.

Izena ematea

Buruntzaldea IKT hurrengo denboraldia prestatzen hasi da dagoeneko eta horretarako eskolarako zein federatu mailako izen ematea ireki du bere webgunean: www.buruntzaldeaikt.eus.

Hurrengo denboraldirako informazioa (egunak, ordutegiak, prezioak...) ere argitaratu dituzte.

Martxan da Sanpedroetako esku pilota txapelketako izen ematea

Maiatzaren 25ean hasiko da Intza kirol elkarteak Lasarte-Oriako haur eta gaztetxoentzat antolatzen duen lehia

Txintxarri

Intza kirol elkarteak San Pedro Jaietako 30. esku pilota txapelketa antolatuko du. Lasarte-Oriako 2010 eta 2015 urte artean jaiotako pilotariek parte hartu ahalko dute lehiatan eta bakarka zein bikoteka jokatu dute.

Hilaren 25tik aurrera, zaletuek neurketa ezberdinetaz gozatu ahalko dute larunbat eta igande goizetan, Loidibarren pilotalekuan. Uztailaren lehen, San Pedro Jaietan barruan, jokatu dira finalak.

Lehiakideek kirol arroparekin jokatu beharko dituzte partidak, finalerdiak eta finalean izan ezik; pilotari arropa zuria erabiliko dute horietan. Jokoan erabiliko dituzten piloten dagokienez, pilota goxoarekin jokatu dute. Antolatzaileak arduratuko dira materiala eramateaz, baina ez



2023ko txapelketako irudia. TXINTXARRI

dira gerta daitezkeen lesio edo istripuen arduradun izango.

Izen emate epea ireki da. Inskripzioa egin nahi duten haur eta gaztetxoek astearte edo ostegunetan 17:30etik 18:00etara gerturatu beharko dute Michelin kirol guneko pilotalekura. Azken eguna hilaren 17a izango da.

Trinkete txapelketa, ekainaren 8an

Frontenis txapelketa antolatu dute ekainaren 8an, Mirentxuko trinketean. Erraketa eta gomazko pilotarekin jokatu da eta gehienez 16 bikotek parte hartu ahalko dute.

Lehen saria 200 eurokoa izango da. Bigarren sailkatuak 100 euro jasoko ditu eta hirugarrenak, Avenida tabernako menu goxoa dastatuko du.

Inskripzioa ireki da eta maiatzaren 31era arte izango dute bikoteek 638 051 253 telefono zenbakian izena emateko. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko.

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak udako eskaintza aurkeztu du

Adin guztietako herritarrei zuzendutako saioak izango dira. Uztailaren 2tik 24ra eskainiko dira ikastaroak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak udan eskainiko dituen heldu eta gazteentzako zein haurrentzako jardueren programa aurkeztu du.

Helduentzako body zunba, kardiofit edo igeriketa saioak, gazteentzako padela eta kirol udalekuak zein igeriketa ikastaroak etxeko txikientzat. Ikus egunak eta orduak, ondoko taulan. Ikas-

taroak uztailaren 2tik 24ra eskainiko dira kiroldegian.

Talde horietako batean parte hartu nahi duten herritarrek ekainaren 7ra arte izena eman ahalko dute. Hiru eratarako egin daiteke inskripzioa: Buruntzaldea kirolak webgunea, 943-37 61 82 telefonoa eta kiroldegiko bulegoa (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara edo asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara).

Helduentzako kirol jarduerak (16 urtetatik aurrera):

• Body zunba:

Astelehena eta asteazkena, 20:30ean.

• Kardiofit:

Astelehena eta asteazkena, 19:30ean.

• Igerian ikasten:

Astelehenetik ostiralera, 19:15ean.

Gazteentzako kirol-jarduerak:

• Padela:

- 2013-14 urtetan jaiotakoak:

Astelehena eta asteazkena, 10:00etan.

- 2011-12 urtetan jaiotakoak:

Astelehena eta asteazkena, 11:00etan.

- 2009-10 urtetan jaiotakoak:

Astelehena eta asteazkena, 12:00etan.

Haurrentzako kirol-jarduerak:

• Igerian ikastea:

- Astelehenetik ostiralera, 16:45etik 17:30era.

- Astelehenetik ostiralera, 17:35etik 18:20era.

- Astelehenetik ostiralera, 18:25etik 19:10era.

• Kirol Udalekuak:

Astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik 13:00etara emango dira.

Astebeteko hiru deialditan:

- 1. astea: uztailaren 2tik 5era (4 egunekoak izango da, San Pedro Jaiak direla eta).

- 2. astea: uztailaren 8tik 12ra.

- 3. astea: uztailaren 15tik 19ra.

Haurrek bat, bi edo hiru astetan parte hartu ahalko dute.

ZORION AGURRAK



Iñigo, Jon, Aita
Familiakoentzat Iñigo edo Aita, lagunentzat Jon... eta guztion partez, zorionak!!! Aizu, sukaldaria izanik, zein da horren guapoa izaten jarraitzeko errezeta sekretua? Kontatu, kontatu!



Florian eta Encarna
Zuengandik ikasi dugu zer den maitasuna. Larunbatetik aurrera hurrengo 50ei egurra!!!!



Pedro
Zorionak maitia, 9 urte jada! Seme eta anai eredugarria zara, ez zaitetz inoiz aldatu eta jarraitu zure ametsak betetzeko borrokatzen! Askok maite zaitugu! Ama, aita eta Laura.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 10	GIL
LARUNBATA, 11	GIL
IGANDEA, 12	GIL
ASTELEHENA, 13	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 14	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 15	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 16	DE ORUE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

San Juan sokadantza entseguak

San Juan bezperako Sokadantza prestatzeko entsegu irekiak egingo ditu Erketz EDTk. Saioak hilabete honetan hasi dira eta asteazkene- ro 20:00etan bilduko dira Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikinean. Parte hartu nahi duen edonor bertara daiteke entsatzera.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

SUDOKUA

	2	1		7	8		9	
	3			4			1	
	6			1	2		7	
2		4	9		5	7		
3			8		4	1	2	9
	9	8		2		4		
		2		5		3	4	
1	4		2		3	9		7
		3	4		7	2		

Sudoku10.net

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA



ALOKATU

Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredembarra (Tarragona), asteka, uztailean eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitza amerikar erako egongela, sukaldia, bainugela eta senar-emaz-

teentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentearekin eta aparkaleku propioarekin. Prezioa 975 euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110 608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldean deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko ekaintzen da.

Esperientzia du, baita informere ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da esturuetan lan egiteko. Esperientzia eta informerekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia du. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 20 00.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Tiakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 10

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak manifestazio bat aurrera eramango du *Rafah zutik! Palestina askatu!* lelopean.
Okendo plaza, 20:00etan.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Saustatxo elkarteak (Uzturre plaza 8) Barrikotea deitu du. Sagardotegi menua dastatuko dute bazkideek.
Saustatxo elkarteak, 14:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Hodei magoaren *Sentsazioak* antzerki familiarra ikusteko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 12

LASARTE-ORIA Zinema

Johnny Puff mision secreta haurrentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Puan helduentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 13

LASARTE-ORIA Jardunaldia

XVIII. Baloreetan Hezi jardunaldiak antolatatu ditu Danok Kide elkarteak, eta lehen saioa aurrera eramango du: Miren Gabirondo gonbidatuaren eskutik, *Musikoterapia, pertsonen prozesua*. Sarrera doakoa.
Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 14

LASARTE-ORIA Jardunaldia

XVIII. Baloreetan Hezi jardunaldiak antolatatu ditu Danok Kide elkarteak, eta bigarren saioa aurrera eramango du: David Egizabal



LASARTE-ORIA Hitzaldia

Borobileen elkarteak solasaldi berri bat aurrera eramango du. Idurre Eskisabel izango da hizketan lehena, euskara jasaten ari den oldarraldiaz, gure hizkuntzaren egungo egoeraz eta ditugun erronketaz Kontseiluak duen begirada aurkeztuz. Igor Agirrek, ondoren, Tolosaldean azken urteotan egin duten ibilbidearen berri emango digu. Haritz Salaberriak, hirugarrenik, Lasarte-Oriako egoeraz eta gaur egungo erronketaz ariko da. Amaitzeko, hizlariak eta bertaraten direnek iritziak trukatu dituzte.
Hilak 22, Oriarte-Landaberri, 19:00etan.

herritar gonbidatuaren eskutik, *Txinako medikuntza tradizionala*. Sarrera doakoa.
Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 15

LASARTE-ORIA Jardunaldia

XVIII. Baloreetan Hezi jardunaldiak antolatatu ditu Danok Kide elkarteak, eta hirugarren saioa aurrera eramango du: Amaia Urkiza gonbidatuaren eskutik, *Zergatik galtzen gara hainbeste buruko zarataren aurrean*. Sarrera doakoa.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Dantza

Ekainaren 19ra arte, Erketz dantza taldeak asteazkeneko egingo ditu San Joan bezperako (ekainak 23) sokadantza prestatzeko saioak. Edonor joan daiteke.
GaraikoetxeA-Landaberri, 20:00etan.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak antolatuta, Zubietako erraustegira marxa egingo dute.

Horren aurretik, urte guzti hauetan egindako borrokaren adierazle izan diren afixen erakusketa ikusteko aukera izango dute herritarrek.
Okendo plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Khea Ziater proiektuak *La sed del minotauro* helduentzako antzerkia taularatu du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA Solasaldia

Borobileen elkarteak solasaldi berri bat aurrera eramango du. Idurre Eskisabel izango da hizketan lehena, euskara jasaten ari den oldarraldiaz, gure hizkuntzaren egungo egoeraz eta ditugun erronketaz Kontseiluak duen begirada aurkeztuz. Igor Agirrek, ondoren, Tolosaldean azken urteotan egin duten ibilbidearen berri emango digu. Haritz Salaberriak, hirugarrenik, Lasarte-Oriako egoeraz eta gaur egungo erronketaz ariko da. Amaitzeko, hizlariak eta bertaraten direnek iritziak trukatu dituzte.
Oriarte Landaberri, 19:00etan.

ZINEMA



LABURPENA

'Puan'

Zuzendaria: Maria Alche eta Benjamin Naishtat. **Ekoizleak:** argentinar, italiar, brasildar, frantziar eta alemaniar koprodukzioa. Pasto Cine, Pucara Cine, Bubbles Project, Infinity Hill, Kino Produzioni, Pandora Film eyta Atelier de Production. **Gidoia:** Maria Alche eta Benjamin Naishtat. **Herrialdea:** Argentina (2023). **Iraupena:** 111 minutu. **Generoa:** Komedia. Drama. **Aktoreak:** Leonardo Sbaraglia, Marcelo Subiotto, Julieta Zyberberg, Alejandra Flechner, Cristina Banegas, Andrea Frigerio, Mara Bestelli, Hector Bidonde, eta abar.

Kargua nork eskuratuko lehia

Marcelo (Marcelo Subiotto), 50 urte inguruko gizona, Filosofia eta Letretako Fakultatean filosofia irakasten aritu da. Katedrako burua, aholkularia eta pentsamenduaren abenturazalea ustekabean hiltzen denean, Marcelok onartuko du hutsik geratu den

katedraren titulartasuna oinordetuko duela. Ez du imaginatuko, ordea, Rafael Sujarchuk (Leonardo Sbaraglia), lankide bikaina eta limurtzailea, Alemaniatic itzuliko dela hutsik dagoen postu hori lortzeko. Horrela, bi irakasle oso kontrajarrien arteko lehia hasiko da.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Musika

Danok Kide Guraso Elkarteak XVIII. Musika Topaketen lehen saioa aurrera eramango du; Oiaso Kameratak *Barroko ala ez Barroko?* emanaldia eskainiko du. Sarrera doakoa da.
Brigitarren komentua, 19:30ean.

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Semblante Andaluzek *Lasartoria* antzezlan ohoitzaratuko dute. Gonbidapenak hartzea nahitaezkoa da.
Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Musika

Danok Kide Guraso Elkarteak XVIII. Musika Topaketen bigarren saioa aurrera eramango du. Easo Eskolania, Easo Kapera Gregorianista eta Easo abesbatzak emanaldia eskainiko dute. Sarrera doakoa da.
Brigitarren komentua, 19:30ean.

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Dantza

Udal Dantza Eskolako kideek emanaldia eskainiko dute.
Kultur etxea, 18:30ean.

GALDERA LEHIAKETA Lasarte-Oriako Toponimia

30 GALDERA

**MAIATZAREN
6-12
(10 galdera)**

**MAIATZAREN
13-19
(10 galdera)**

**MAIATZAREN
20-26
(10 galdera)**



2 SARI

**2 PERTSONENTZAT
LANDETXE BATEAN
GAU BAT + GOSARIA**

**2 PERTSONENTZAT
MENO BEREZIA
AVENIDA IATETXEAN**



LASARTE-ORIA
UDALA

txintxarri

BAZKIDETZA

TTAKUN

bazkide egiteko:



TTAKUN BAZKIDETZA
60€
URTEAN

BAZKIDETZA GAZTEA (18-30)
30€
URTEAN

TTAKUNENEA

TTAKUNENEA BANAKAKO
18€
HILABETEAN

TTAKUNENEA BIKOTEKO
25€
HILABETEAN

TTAKUNENEA GAZTE (18-30)
10€
HILABETEAN

TTAKUN
KULTUR ELKARTEA

